

## **2017KO APIRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko apirilaren 27an, 7:00etan

**BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV), ez da bertaratu

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2017KO MARTIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko martiaren 30ean egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori ago batez onartu dabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

*86/2017.- Sasiarte Mendi Taldearen izenean, 2017ko martxoaren 17an eskaera bat egin dio Bakioko Udalari, elkarte horrek egoitza soziala Kultur Etxean izan dezan.*

*87/2017.- Akatsez hartutako betebeharren ezeztapena ebaztea.*

*88/2017.- Nominak ordaintzeko ebazpena.*

*89/2017.- Nominak ordaintzeko ebazpena (San Joseak).*

*90/2017.- Estepona eta Ondarre erreken azterlan hidrauliko eta ingurumen azterlana egiteko aurrekontua onartzea.*

*91/2017.- Itzulketak bideratzeko ebazpena.*

*92/2017.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.*

*93/2017.- Luiseneko jaubeen komunitadeari agindua emotea eraikina mantentzeko beharrezko lanak egiteko.*

*94/2017.- Ezkutuko obrak eteteko ebazpena.*

*95/2017.- Txontxoenasolo 1.ean dagoan eraikinaren Jaubekideen Komunitadeari obra lizentzia emotea.*

*96/2017.- Laguntza bateri uko egiteko ebazpena.*

*97/2017.- Obra zerga baten behin betiko likidazinoa.*

*98/2017.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.*

*99/2017.- Barrenkale 2.ean dagoan eraikinaren Jaubekideen Komunitadeari obra lizentzia emotea.*

*100/2017.- Persona batzuei Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko espedientea hastera.*

*101/2017.- Barrenkale 4.ean dagoan eraikinaren Jaubekideen Komunitadeari obra lizentzia emotea.*

*102/2017.- Slaloma antolatzeke udal baimena.*

*103/2017.- Baserri bateko fatxadako horma bat sendotzeko lizentzia.*

*104/2017.- Uribe-Butroeko Korrikari diru-laguntza ematea.*

Amets Jauregizar alkatea andreak, dekretu honeri buruzko azalpenak emon dauz:

90/2017.- Estepona eta Ondarre erreken azterlan hidrauliko eta ingurumen azterlana egiteko aurrekontua onartzea.

2017/03/2017ko BAO n BFAren martiaren 7ko 28/2017 dekretua argitaratu da. Dekretu horretan diru-laguntzak arautzen dira behar honeek finantzatzeko: urigintza plangintzaren berrikuspena edo, hori lantzeko bidean, behar eta azterlan gehigarriak, esate baterako, ingurumen estrategikoari buruzko azterlana.

Hori dala eta, herriko urigintza plangintzaren berrikuspenaren barruan Estepona eta Ondarre ibaien hidrauliko eta ingurumen arloko azterlana idaztea beharrezkoa dala ikusten dan ezker, horretarako finantzabidea lortzeko diru-laguntza eskatu da dekretu horren pentzura.

### **3.- BAKIOKO BIDE JAKIN BATZUETAN IBILGAILUAK APARKATZEKO DENBORA MUGATZEARI, ANTOLATZEARI ETA KONTROLATZEARI BURUZKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Kontuan hartu beharra dago “GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS, S.A.” enpresek eta Bakioko Udalak 2009ko uztailaren 1ean izenpetu ebela honako kontratu hau: ibilgailuak garabiaz kentzeko eta Bakioko hainbat bide publikoetan ibilgailuak kontrolatzeko, mugatzeko eta ordenatzeko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua (TAO), hain zuzen be. Kontratuaren iraupen epea zortzi urtekoa zan (Administrazio Klausulen Agiriaren 3. artikulua arabera eta urtebeteko epeetan luzatu eiteken, gehienez 10 urte bete arte); halanda ze, kontratua indarrean sartu zan sinatutako egunean bertan eta ezarri zan enpresek kobratu beharreko kopurua 155.042,69 eurokoa izango zala urteko (BEZ sartu barik), beti be enpresek lizitazio fasean aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren zatia zan ustiapen aurrekontuaren arabera.

Era berean, kontuan hartu beharra dago “GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS, S.A.” enpresek eta Bakioko Udalak kontratuaren aldarazpen bat izenpetu ebela 2013/08/27an, enpresei ordaindu beharreko prezioa 135.854,00 euroan iminiz (BEZ barik), zerbitzuaren murrizketa bat egon zalako; izan be, garabia zerbitzua udala emoten hasi zen bere beharginen bidez.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago administrazio klausula berezien agiriaren 3. klausulan ezarritakoa, kontratuaren muga eguna 2017/06/30ean izango da eta:

*Kontratuaren iraupena ZORTZI urtekoa izango da eta urtebeteko epe jarraituetan luzatu ahalko da, gehienez be HAMAR URTEra arte.*

*Luzapena hautazkoa izango da udalarentzat eta derrigorrezkoa kontratistarentzat.*

*Kontratuaren ZORTZI urteak amaitu ostean, kontratua EZ da isilbidez luzatuko. Udalak luzatzeko beren beregiko erabagia hartu beharko dau, hilabete bi lehenago.*

Aldi berean, kontuan hartu beharra dago Administrazio Klausula Berezien agiriaren 4. klausulan ezarritakoa: *zerbitzuari lotutako materialak amortizatzeko epea, udalari eskualdatuko jakozanak kontratua amaitzen danean, 8 urtekoa izango da.*

Azkenik, kontuan hartu beharra dago kontratua urtebete luzatzeko erabagia hartu ezkerok 135.854,00 euroko urteko kopurutik materialaren amortizazioa (40.059,26 €) eta finantzazioa (6.440,88 €) murriztu behar dirala; halanda ze, luzapenaren kontratuaren zenbatekoa 89.353,86 eurokoa izango litzakete urtean (BEZ barik).

Tramitatutako espedientea kontuan hartuz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau

**1.- Bakioko hainbat bide publikotan ibilgailuak kontrolatzeko, mugatzeko eta ordenatzeko zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua luzatzea; kontratu hori 2009/07/01ean sinatu eta 2013/08/27an aldarazo zan “GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS, S.A.” enpreseagaz eta luzapenaren epea urtebetekoa izango da, 2017ko garagarrilaren 1etik zenbatzen hasita eta enpresari ordaindu beharreko kontratuaren prezioa 89.353,86 eurokoa izanik (BEZ barik).**

**2.-Indarreko kontratua aldatzea, prezioari jagokonez baino ez.**

**3.- Gastua 2017ko udal aurrekontuan kontura ezartzea, hurrengo ekitaldian gastuei aurre egiteko zainpetu beharreko ordainketa kredituari kalterik egin barik.**

Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau:

*“2004an lehenengoz ezarri zan. Honako honeek izan ziran argudioak:*

*Udalaren ametsa da ibilgailuen aparkatze zuzena bermatzea; izan be, turisten eta bisitarien etorrera masiboa izanik, hainbat eta hainbat arazo sortzen dira, esaterako berdeguneak eta espaloiak inbaditzea eta ilara bikotxean aparkatzea, beti be, besteak beste, norabide biko zirkulazioa tratatuz eta zuzen aparkatutako ibilgailuen mugikortasuna oztopatuz.*

*Era berean, asko be asko izan dira udal honek udan jaso behar izan dauzen kexak, pasabide tasak ordaintzen dabezan egoiliar finko nahiz aldi baterakoen sarbideak itxita geratzen dirala eta.*

*Beste alde batetik, gure udalerrian aparkalekuak ugariak izan arren, Bakioko biztanleria bider 7z handitzen da udako hilabeteetan; horrek udala behartu dau aparkalekuen arazoa apaltzeko neurriak hartzea.*

*Ganera, zerbitzu publikoaren erabilera alternatiba bat izan daiteke, udalerrirako sarbideak arintzeko edo, horren ezean, gomendagarria izan leiteke ibilgailu partikularren gaitasuna aprobetxatzea erabilera partekatu eta arrazionalago bateri begira; modu horretan lortuko litzateke bisitariak TAOren zerbitzuari errentagarritasuna ataratea”.*

Alkate andreak dino be: 2017an uste dogu gogoeta sakona egin behar dogula mugikortasunaren, irisgarritasunaren eta Bakiora turisten etorrera masiboaren ganean. Udalerrria berrantolatu behar dogu bakiotarren bizi kalidadearen hobekuntzea kontuan hartuz. Hori dala eta, jendeagaz batera azterketa eta hausnarketa bat egiteko aukerea euki daigun, urtebeterako luzapena proposatzen dogu”.

#### **4.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUAK UDALEKO HERRI BIDEETAN APARKATZEAGAITIKO TASEA ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU.**

Amets Jauregizar alkate andreak, hauxe adierazo dau:

2017ko garagarrilaren 1etik aurrera TAO zerbitzuaren kostu ekonomikoa gitxituko dan ezkerro, tresneriren amortizazinoa dala-eta udalak enpreari ordaintzen eutson zenbatekoa ez deusolako ordaindu behar izango, TAO tasaren tarifak aldarazotea proposatzen da, era honetara.

- Egoiliarren txartelaren tarifea 20 eurotan jartea (indarrean dagoan erdia).  
- Erroldatuen txartelaren tarifea 7,5 eurotan jartea (indarrean dagoan erdia).  
- Sabino Arana etorbideko leian dagoan eraikinaren hegoaldeetik eta San Pelaio Bide Nagusiko 17-19 zk. eraikinaren hegoaldera dagoan aparkatzeko lekuan tarifea 0 euro izatea, eta ibilgailuak aparkatzeko epea gehienez 20 minutukoa izatea. Horren arrazoia hauxe da: leku hori uneoro ibilgailuz beterik egoten da, inguru horretan ibilgailuen joan-etorria handia dalako, alboan dagozan komertzio lokalak dirala eta. Horrenbestez, aparkatzeko denbora epea 20 minutura mugatzea gura da (horretarako 0 tarifa daukan txartela egin beharko da) harik eta ibilgailu gehienek aparkatzeko aukerea izateko, beti be trafiko arintasunaren mesedetan. Ibilgailua 20 minutu baino gehiago aparkauta balego isuna jasoko leuke.

Zinegotziak espedientean jasoten dan aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta informazino batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**1.- Trakzino mekanikozko ibilgailuak udaleko herri bideetan aparkatzeagaitiko tasea arautzen dauan ordenantzaren aldarazpena behin-behinean onartzea.**

**2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.**

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta Gorka Azaola) abstenidu egin dira. Aitor Apraiz taldeko bozeroaleak dino eurak ados dagozala tarifen zenbatekoak gitxitzeaz eta aitaturako tartean ibilgailuak aparkatzeak 20 minutura mugatzeaz, baina EAJ-PNV taldeak informazino batzordean egindako proposamena beste modu batekoa izan zala.

## **5.- 2017KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar Baraiazarra dino deialdiaren nondik-norakoaren ganean herriko alkarteez berba egin dala eta, agiri horren edukinari jagokonez, zinegotziak be jakitun dirala, zergaitik eta, horren kopia eukiteaz ganera informazino batzordean berba egin dalako.

Ikusirik inork be ez dauala aitamenik egin, botoa emoteko txandea heldu da; eta, beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzak alkarteei emoteko 2017ko deialdia onartzea, horren edukia hauxe izanik:**

**“BAKIOKO UDALERRIKO ELKARTEEI 2017. URTEAN URTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BERARIAZKO OINARRIAK**

### **SARRERA**

*Bakioko Udalak deialdi honen bidez emango dituen diru-laguntzen helburu dira Bakion egoitza duten kultur, kirol eta gizarte elkarte guztiak. Gehienbat elkarte txikiak dira, sarri langilerik gabe eta boluntarioei esker jarduten dutenak. Bestaldetik ere, udal honek badaki laguntza publiko hauen xedea irabazi asmorik gabeko erakundeen jarduerak laguntzea, saritzea eta baloratzea dela, babes hori ezinbestekoa baita erakunde eskatzaileek bizirik jarrai dezaten. Azkenik ere, aintzat izan behar da talde horien ohiko jarduera dela garapeneko edozein gizarteren euskarrietako bat.*

## **ESPARRU ARAUEMAILEA**

*Oinarri zehatz hauek argitara eman dira Bakioko Udaltzaren 2016ko urriaren 10eko bilkuran behin betiko onetsitako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak (19/11/2016ko BAO on argitaratuta) eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik.*

## **FINANTZAZIOA**

*Deialdi honen xedea betetzeko, finantzazioa aurrekontu-kreditu baten kontura egingo da. Aurrekontu-kreditu horren gehienezko kantitatea 27.0000 eurokoa izango da, eta 330/4810120 aurrekontu partidan jasota dago.*

*Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publikoetatik edo pribatuetatik jaso ahal diren bestelako diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin zein baliabideekin, Diru-laguntzei buruzko Ordenantzak ezarritakoa betetzen bada.*

## **ARAUDIA**

### **1.- HELBURUA**

*Deialdi honen helburu nagusia honakoa da: Bakioko kultur eta kirol elkarteek 2017an programaturako ohiko jarduerak diruz laguntzea, saritzea eta baloratzea.*

### **2.- ERAKUNDE HARTZAILEAK**

*Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko honako baldintza hauek bete behar dira: Bakion egoitza soziala edukitzea edo Bakioko udalerrian egotea, elkarte baten izaera edukitzea eta kultur, kirol edo gizarte jarduerak bat garatzea, baldin eta Bakioko udalerrientzat interesgarria bada eta Bakioko Udalak garatutako jarduerak hobetzen, osatzen edo ordezkatzeko baditu diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantzak ezarritakoaren arabera.*

*Eskatzaileak elkarte izaera izango du eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroaren izena emanda izan beharko du.*

### **3.- DIRU-LAGUNTZA MOTA**

*Diru-laguntza hauek erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu programako jarduerak laguntzeko eta sustatzeko dira. Jarduera horiek 2017. urtean garatutakoak*

*izango dira.*

#### **4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA**

*Eskabideak Bakioko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira; era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira.*

*Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 22tik ekainaren 30era artekoa izango da, aipatutako bi egun horiek barnean direla.*

*Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, atzera botako dira. Kasu horretan, eskaera izapidetu gabe artxibatuko litzateke.*

#### **5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA**

*Informazioa eta eskabideen ereduak eskuragarri egongo dira Udaleko web orrian ([www.bakio.org](http://www.bakio.org)).*

*Eskaerak deialdi honi atxikitako eranskinak betez aurkeztu ahalko dira. Edozein kasutan ere, diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 7. artikulua ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da betiere.*

*Bestalde, udalak elkarteen ganean dituen datuak eguneratze aldera, elkarreek indarrean dituzten estatutuak aurkeztu beharko dituzte gainerako agiriekin batera.*

*Udalak, egokitzat jotzen duenean, eskatzaileari dokumentazio gehiago eskatu ahal dio aurkeztutako proiektuaren balorazioa egiteko. Kasu horretan, dokumentazio hori aurkeztea derrigorrezkoa izango da eskaera aurrera eramateko.*

#### **6.- ESKABIDEAK BAZTERTZEA**

*Ez dira kontuan hartuko epe mugatik kanpoko eskariak, ez eta beharrezko dokumentaziorik gabe aurkeztutako eskabideak ere.*

#### **7.- ESKABIDE OSATUGABEAK EDO AKASTUNAK**

*Aurkeztutako eskabide eta agiriak osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, 5 eguneko epea utziko zaio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko; epe hori egin beharreko zuzenketari buruzko jakinarazpena egin eta biharamunetik hasiko da. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean,*



*eskabideari uko egiten diola ulertuko da.*

## **8.- NORGEHIAGOKA**

*Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagokaren erregimenari jarraituz esleituko dira, hau da, aurkeztutako eskabideak balioztatuko dira eta, ondoren, lehentasuna erabakiko da, horretarako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak ezarritako irizpideei jarraituz.*

## **9.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK**

*Diru-laguntza erabakitzerakoan, oro har honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:*

### **a.- EUSKAREN ERABILERA SUSTATZEA ETA PROIEKTUA EUSKARAZ GARATZEA (gehienez 10 puntu)**

*Erabilera ahoz eta idatziz (3 puntu)*

*Entseguak, entrenamenduak, tailerrak, aurkezpenak... (3 puntu)*

*Euskararen erabilera sustatzea elkarteko kideen artean eta ikus-entzuleen edo partaideen artean (4 puntu)*

### **b.- BERDINTASUNA SUSTATZEA GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOEN ARTEAN (gehienez 5 puntu)**

*Idatzizko nahiz ahozko komunikazioan (2 puntu)*

*Zuzendaritzan (puntu 1)*

*Elkarte barruan genero berdintasuna sustatzeko proposatutako ekimenak (2 puntu)*

### **c.- TALDEAREN INPLIKAZIOA ETA LANKIDETZA UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN (gehienez 10 puntu)**

*Antolakuntza: Olentzero, Euskararen eguna, jai batzordea ... (5 puntu)*

*Partaidetza: Santa Ageda, Euskararen eguna, jaiak... (5 puntu)*

### **d.- PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK (gehienez 10 puntu)**

*Jardueren maiztasuna eta kopurua (3 puntu)*

*Egindako jardueren ikus-entzuleen kopurua (5 puntu)*

*Elkarte eskatzailearen kide kopurua (2 puntu)*

### **f.- BESTELAKOAK (gehienez 20 puntu)**

*Euskal kultura edota Bakioko irudia kanpoaldean zabaltzea eta sustatzea (2 puntu)*

*Genero berdintasuna, euskararen erabileraren sustapena, ezinduen edo etorkinen integrazioa eta antzeko gaiak hobetzeko antolatzen diren ikastaro edo hitzaldietan parte hartzea (3 puntu)*

*Ezinduak edota etorkinak integratzeko ahaleginak (2 puntu)*

*Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko egindako ahaleginak (2 puntu)*

*Proiektu bakoitzaren alde berritzaile eta osagarriak, beste ataletan jorratu gabeak (3,5)*

*Bestelako laguntza ekonomikoak eskuratzeko egindako ahaleginak (loteria, kamisetak, udalez gaundiko erakundeak...) (3 puntu)*

*Laguntza eskatzeko aurkeztutako txostenaren kalitate eta zehaztasuna (3 puntu)*

*Elkarte bakoitzaren antzinatasuna (1,5)*

*Irizpide hauen balorazio zehatza eranskinetako taulan azaltzen da.*

## **10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA**

*Oinarri zehatz hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio-organoa honako hau izango da:*

*LEHENDAKARIA: Kultur zinegotzia.*

*KIDEAK: Bakio Bizi batzordeko alderdi bakoitzeko zinegotzi bat, kultur teknikaria eta euskara teknikaria.*

*IDAZKARIA: Udal idazkaria edo horrek izendatutako udal teknikaria.*

*Ordenantzak ezarritakoari jarraituz, udalbatzak ebatziko ditu diru-laguntzak, behin instrukzio-organoak emandako ebazpen-proposamena eta beharrezko informazio-batzordeak egindako irizpena kontuan hartuta.*

## **11.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

*Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publikoek zein pribatuek xede berarekin emandako edozein diru-laguntzarekin. Dena dela, ezingo da gainfinantzaketarik egon. Zenbatekoari dagokionez, elkarre bakoitzari gehienez emango zaion diru-laguntza xede honetarako ezarritako aurrekontu partidaren %10 izango da. Hortaz, eskatzaileei gehienez eman dakiekeen diru-laguntza 2.700 eurokoa izango da, beti ere, elkarrearen aurrekontua gaintzen ez bada. Izan ere, lortutako diru-laguntza ezin izango da izan elkarre bakoitzaren aurrekontuaren % 90 baino altuagoa, gainfinantziatorik egon ez daiten.*

*Eskaerak eta proiektuak aztertu eta baloratu ondoren, lortutako puntuak batu, eta ondoko koadroari jarraituz banatuko da xede honetarako dagoen diru-laguntza partida:*

<b>Proiektuari emandako puntuak</b>	<b>Emandako diru-laguntzaren %</b>
40 puntu edo gehiago	Partidaren % 10 (2700€)
32-39 puntu	Partidaren % 7,5 (2025€)
24-31 puntu	Partidaren % 5 (1350€)
16-23 puntu	Partidaren % 2,5 (675€)
15 puntu edo gutxiago	100€

*Bestalde, diru-laguntzen emakida ebazpena egiterakoan eskura dagoen aurrekontuaren eta kreditu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatuta egongo da. Izan ere, gerta daiteke eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 2.700 euroko kopurua behar bestekoa ez izatea ontzat emandako eskaera guztiei zenbateko hori eman ahal izateko; halakorik gertatuz gero, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatuko da modu proportzionalan, betiere gorago zehaztutako taulan jasotako portzentajeak kontuan hartuz.*

## **12.- ERAKUNDE ONADUNAREN BETEBEHARRAK**

*Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua aurrera eraman behar du udal ordenantzaren 15. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.*

*Nolanahi ere, emakidaren ebazpena egokituta, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal du, eta baimendu ahal izango da, baldin eta besteen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.*

*Erakunde eskatzaileak, diru-laguntzaren onuraduna den kasuan, nahitaez barne hartu beharko ditu sustapen-elementuetan eta diruz lagundutako jardueraren horma-irudi, testu, aurkezpen edo agirietan, Bakioko Udalaren babesa lortu duela; halaber, euskaraz edo EAeko bi hizkuntza ofizialetan landu beharko ditu horma-irudiak, testuak, agiriak zein ahozko adierazpenak.*

## **13.-DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**

*a. Jasotako diru-laguntzari emandako erabilera justifikatzea da onuradunek duten beste betebeharretakoa bat. Aurtengo deialdian jasotako diru-laguntzen justifikazioa elkarrekin datorren urteko (2018) urtarrilaren 31a (barne) baino lehen egin beharko dute.*

*b. Aipatu bezala, horiek justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:*

*b.1. Gauzatutako jardueren memoria zehatza.*

*b.2. Jarduerak sortutako sarrera eta gastu guztien balantzea. Sarrereren zerrendan edozein kontzepturengatik lortutako sarrerak zehaztuko dira, hala nola: bazkideen kuotak; edozein erakundetatik (publikoak nahiz pribatuak izan) eskuratutako diru-laguntzak edo babesletzak; sarrereren salmentagatik edo jendeak emandako borondatea dela-eta bildutako zenbatekoak; loteriak edo zozketak; txosnetan eta abarretan edariak edo jakiak salduz ateratakoa; publizitatea, materialaren (eranskailuak, pinak eta abar) salmentatik ateratakoa eta abar.*

*Gastuen eta inbertsioen zerrenda egongo da sailkatuta diruz lagundutako jardueraren gastuak edota inbertsioak bilduz. Zerrendan bertan, hornitzailea eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Pertsona onuradunek, gutxienez, lau urtez kontserbatuko dituzte fakturak edo merkataritzako trafiko-froga balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, baita ordainagiriak ere.*

*Diruz lagundutako programarekin edota jarduerarekin harreman zuzenik ez duten gastuak (catering eta ordezkariak, bazkariak eta antzekoak) ez dira justifikazio moduan erabiliko, baldin eta programaren kostuaren % 10 gainditzen badute.*

*Langileen gastuak barne hartzen dituzten diru-laguntzen kasuan, dagozkien nominak edo soldaten ordainagiriak aurkeztu beharko dira, datu hauekin: izena eta bi abizenak, NAN zenbakia, hilabetea, zenbateko gordina, dagozkion beherapenak eta zenbateko likidoa; baita Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak ere. Halaber, nominen ordainagiriak aurkeztu beharko dira, Gizarte Segurantzako kotizazioen agiriak eta zerga-kopuruen ordainagiriak.*

*Horretarako, hautatutako onuradunei aipatutako dokumentazioa bidaltzeko eskatzeko aukera izango du administrazioak.*

*b.3. Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratutako liburuxka, horma-irudi, liburu, bideo, CD-Rom eta abarren ale bana.*

*c. Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar baditu, egiaztagiriak fotokopiekin batera aurkeztuko dira, horiek egiaztatu eta jatorrizkoak zigilatu ondoren onuradunari itzultzeko.*

*d. Aurkeztutako egiaztagiri guztiek diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoko urte naturalean dataturik egon behar dute, diru-laguntza emango bazaie.*

*e. Esan bezala, 2018ko urtarrilaren 31ra arteko epea dago 2017. urtean jasotako diru-laguntzaren justifikazioa egiteko. Horrela ez baliz egingo, elkarte horrek ezin izan luke aurkeztu hurrengo urteko deialdira harik eta beharrezko zuriaketak egin eta Udalarekiko zorrak kitatu arte.*

#### **14.- ZEHAPEN-ARAU BIDEA**

*Zehapen eta arau-hausteen araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluaren eta Administrazio Publikoaren Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen ezarritakoa izango da.”*

## **6.- LEMOIZKO ETA BAKIOKO UDALEK SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak horren ganeko azalpenak emon dauz esanez lankidetzaren horren ondorioz Lemoizko herritarrek Bakiotarren eskubide bardinak izango dabenez Bakioko kiroldegiko zerbitzuak erabilteko, eta, alderantziz, bardin gertauko dala Bakiotarrek Lemoizko kiroldegiaren zerbitzuak erabilteko orduan, eta, azken batean, helburua dala kiroldegiari bizitasun handiagoa ematea.

Zinegotziak hitzarmenaren edukinaren jakitun diran ezker, eta tramitatutako espedientea kontuan hartuz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**1.- Lemoizko eta Bakioko udalek sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta akta honerik onartzea.**

**2.- Alkate andreak hitzarmena sinatzea, udalaren legezko ordezkaria dan aldetik, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1085 legearen 21.1.b) artikulua arabera**

## **7.- ALTSASUKO ATXILOTUEI ATXIKIMENDUA ADIERAZOTEN DEUTSEN MOZINOA.**

Amets Jauregizar alkate andreak, dino Altsasuko Udaletik jaso dogun idatzian Bakioko Udalaren alkatasuna eskatzen dala, Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta idazki horren sinatzaileek ordezkatzeko daben gizarte zibilak luzatu dauan deiarri jarraiki:

*Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko liriteke, izan ere epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokio eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere.*

EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotzien (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta Gorka Azaola) aldeko botoagaz, korporazioa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan zirela eta, Entzutegi Nazionalari eskatzea prozesu horren izapideak Iruñan egitea, epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei dagokielako**

Alain Gómez zinegotziak; Bakiobai taldearen izenean, hauxe adierazo dau: *Bakioko udalaren gaindiko gaia da, jite politikoa daukana; ganera gure alkartea ildo politiko desberdinetako jendez osotuta dago eta batzen gaituena da Bakiori buruzko programeak. Beraz, guk ez dogu botorik emongo.*

Horrenbestez, Bakiobai taldeko zinegotzi biak (Alain Gomez eta Josu Garai) abstenidu egin dira.

## **8.- MEMORIA, ERREFUXIATUAK ETA ERABAGITEKO ESKUBIDEAREN MOZINOA ONARTU.**

Ametz Jauregizar alkate andreak, mozino hori irakurri dau eta aitatu dau agiri horregaz Bakioko alkarteak bat datozala:

## BAKIO 1937-2017

1937.urteko Malatzak 8<sup>a</sup> eguniluna izan zen Bakiotarrantzat. Tropa Frankistek Sollubeko bataila irabazi eta gutxika gutxika gure herria hartzen joan ziren. Jatan emango zen batailaren aurreko egunak ziren. Herria, Italianoz eta Tropa Frankisten alde borrokatu zuten militarrez bete zitzaigun. Herritarrek etxeak zabaldu behar izan zizkieten Frankistei, indarrez, bildurrez... ezkutuan, mendira borrokara joan ziren bakiotarrei laguntza ematen zieten bitartean. Mendingoan zeuden herritarrek, helburu bakarrekin egin ziren gudari, herritarrek demokratikoki erabaki zutena defendatzea, alegia. Demokrazia, talde edo erakunde bateko kide guztien iritzia berdintasunez kontuan hartzen dituen erabakitze modu kolektiboa baino ez da. 1937.urtean hitza eta erabakia kendu ziguten.

Euskal Herriko herri gehienak bonbardeatuak izan ziren, gure mendiak lubakiz bete zituzten. Gaur egun hainbat eta hainbat dira mendietan galduta dirauten gorpuak. Gerrak, migrazio masiboa eragin zuen. Herritar asko, bakiotarrak tartean, beste herrialde batzutan gorde behar izan ziren. Europak eta baita Amerikak ere, gure herritarrek hartu zituen, elkartzunez, asilo politikoa eman zieten eta izaera eta izana kendu gabe gure herritarrek babesa jaso zuten.

Gezurra badirudi ere oraindik, gerrak etengabeak dira munduko txoko askotan. Askotan dira Europako mugak zeharkatu nahi dituzten herritarrek ihesi. Europak ordea, mugak itxi ditu, herritarrek hiltzera kondenatu ditu, gosez hiltzera nahi ditu. Gu, gerra bizitako herritarren alaba, seme eta ilobok, ezin dugu beste alde batera begiratu eta ozen oihukatu nahi dugu, zabal ditzatela mugak eta eman diezaiegun ongi etorria errefuxiatuei.

80 urte pasa dira Euskal Herria suntsitzen saiatu zirenetik. Urte hauek guztiak ez dira debalde igaro. Gaur, hemen gaude, herritarrok osatu dugun olatuaren zain. Ez da kasualitatea, 80 urte geroago, herritarrok erabakitze aukera izango dugu. Edozein injustiziarri aurre egiteko gure arma indartsuena hitza delako.

Gaur, Bakioko herritarrok ondoko konpromisoak hartu nahi ditugu:

- 1937. urtean gertatutakoa gaitzesten dugu eta gure herriaren pasarte historiko beltzera herritarrei azaldu eta kontatzeko asmoz, gertatutako aztertze konpromisoa hartzen dugu.
- Munduan gertatzen den edozein gerraren kontra gaude eta gerratik edo gatazkatik ihesi datozen herritarren asilo eskubidea errespetatzea eskatu nahi dugu. Ireki ditzatela mugak eta hartu ditzagun errefuxiatuak. Ongi Etorri!
- Hitza eta erabakia dira herritarrok ditugun arma indartsuenak. Erabakitze eskubidea aldarrikatu nahi dugu, herritarroi hitza eta erabakia erabiltzeko dei egin nahi diegu.

Segiduan, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), aho batez, **memoria, errefuxiatuak eta erabagiteko eskubidearen mozinoa onartzea erabagi dau.**

## 9.- ATXIKIMENDUA ADIERAZOTEA HERRIAN EGINGO DIRAN AINGERU GOIKOETXEAREN ALDEKO EGINTZEI.

Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau: herriko kolektibo bat Bakioko parrokoa izan zan Aingeru Goikotxeari omenaldia prestatzen hari da eta, orain hemen, proposatzen dana da omenaldi barruan egingo diran egintzei udalak atxikimendua eta laguntzeko konpromisoa adierazotea.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **atxikimendua eta laguntzeko konpromisoa adierazotea herrian egingo diran Aingeru Goikoetxearen aldeko egintzei**

## **10.- ARANZADI ZIENTZIA ALKARTEAK ETA BAKIOKO UDALAK SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Hasteko Amets Jauregizar Baraiazarra andreak hitzarmenaren edukina irakurri dau, eta, ostean, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**1.- “ARANZADI Zientzia Alkartek eta Bakioko Udalak sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmena onartzea eta akta honeri eranstea.**

**2.- Alkate andreak hitzarmena sinatzea, udalaren legezko ordezkaria dan aldetik, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1085 legearen 21.1.b) artikulua araberaz**

## **11.- 75 URTE EDO GEHIAGO DAUKIEZAN PERTSONAK BIZI DIRAN ETXEBIZITZETAN KEAREN DETEKTAGAILUA IPINTEKO AZTERKETA EGITEKO MOZINOA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Amets Jauregizar alkate andreak dino EAJ-PNV taldeak horri buruz aurkeztutako eskabidea oinarritzat hartuz, gaia informazino batzordean landu zala eta adierazo zana izan zala hilabeteko epean beharizanak identifikatu, hau da, 75 urte edo gehiagoko pertsonen eskabideak jaso, eta jasoten badira informazino batzordean berba egin eskabideok aztertu eta gauzatzeko plangintza bideratzeko, eta, gastuak badagoz 2018ko udal aurrekontuan sartu.

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **75 urte edo gehiago daukiezan pertsonak bizi diran etxebizitzetan kearen detekttagailua ipinteko azterketa egiteko mozinoa onartu, hala behar balitz.**

## **12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Aitor Apraiz zinegotziak, aldetik: Kiroldetgia kudeatzen dauan enpresea prestakuntza ikastaroak noiz egin ahal izango diran zain dagoan ezker, ikastaroen gaia zelan dagoan galdetu dau



Maria Isabel Barturen zinegotziak hau erantzun deutso: Eusko Jaurlaritzak, oraindik, ez dau prestakuntza ikastaroak egiteko dirulaguntzen dekretu arautzailea kaleratu, eta horren zain gagoz.

Ametz Juaregizar alkate andreak dino Garbibakio CB enpreari aurrekontua eskatu jakola, zerbitzu hau emoteko: hondartzako inguruan eta Bakeako umeen joko-lekuan dagozan paperontziak hutsitzeko, eta asmoa da jardun horretan aurtengo apirilaren 30etik irailaren 30era arteko igande eta jaietan aritzea.

Josu Garai zinegotziak Aitor Apraiz zinegotziari galdetu deutso TAOren tasaren aldarazpena onartzeko orduan ia EAJ-PNV zergaitik abstenidu dan.

Aitor Apraiz zinegotziak dinotso EAJ-PNV taldearen proposamena Bakion erroldatuak tasarik ez ordaintzea izan zala, eta hori ez dala onartu.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:35ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria